

BESTELAKO XEDAPENAK

GOVERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

71

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 20koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria, zerrendan ageri diren entitateetako langileen prestakuntzarako behin betiko laguntzak esleitzen dituena.

2018ko maiatzaren 14an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio, foru-administrazio eta Euskal Herriko Unibertsitateko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duen ebazpena.

Halaber, 2018ko azaroaren 2an argitaratu zen behin-behineko laguntzak esleitzen zituen ebazpena.

Behin prestakuntza-planaren betearazpena justifikatzeko epea amaituta, eta aipatutako ebazpenean ezarritakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako laguntza hauek behin betiko ematea, aipatzen diren entitateetako prestakuntza finantzatzeko:

2019ko urtarrilaren 7a, astelehena

Autonomia-erkidegoko udal-administrazioak:

| Entitatea | Esleitutako zenbatekoa |
|-------------------------|------------------------|
| Andoaingo Udala | 8.115,04 |
| Arrasateko Udala | 10.192,12 |
| Azpeitiko Udala | 2.409,48 |
| Barakaldoko Udala | 9.804,55 |
| Beasaingo Udala | 4.057,53 |
| Berastegiko Udala | 108,00 |
| Bermeoko Udala | 9.177,74 |
| Bilboko Udala | 128.343,45 |
| Donostiako Udala | 65.064,93 |
| Durangoko Udala | 6.916,64 |
| Eibarko Udala | 10.385,34 |
| Ermuko Udala | 6.231,20 |
| Errenteriako Udala | 9.805,69 |
| Getxoko Udala | 21.833,36 |
| Hernaniko Udala | 1.960,50 |
| Irungo Udala | 19.997,81 |
| Laudioko Udala | 7.583,71 |
| Legazpiko Udala | 3.091,45 |
| Leioako Udala | 7.173,43 |
| Loiuko Udala | 278,00 |
| Markina- Xemeingo Udala | 1.167,50 |
| Oñatiko Udala | 1.717,48 |
| Orozkoko Udala | 317,00 |
| Portugaleteko Udala | 7.960,96 |
| Sestaoko Udala | 9.374,93 |
| Urnietako Udala | 1.059,00 |
| Vitoria-Gasteizko Udala | 36.498,54 |
| Zallako Udala | 2.221,98 |
| Zigoitiko Udala | 386,43 |
| Zumarragako Udala | 3.332,97 |
| Guztira | 396.566,76 |

Autonomia-erkidegoko foru-administrazioak:

| Entitatea | Esleitutako zenbatekoa |
|--------------------------|------------------------|
| Arabako Foru Aldundia | 52.224,76 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 106.486,65 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 59.288,59 |
| Guztira | 218.000,00 |

Euskal Herriko Unibertsitatea (administrazio eta zerbitzuetako langileak):

| Entitatea | Esleitutako zenbatekoa |
|-------------------------------|------------------------|
| Euskal Herriko Unibertsitatea | 45.000,00 |

Bigarrena.– Agintzea esleitutako behin betiko zenbatekoa baino gehiago jaso duten entitateei dagokien diru-kopurua itzultzeko izapideak hastea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikulua arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakiok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatu bezala.

Hala ere, aldez aurretik, erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatu dezan. Errekerimendua IVApeko zuzendariari zuzendu beharko zaio idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea zenbatuko da erabaki espresuaren jakinarazpena jaso edo ustez ukatutzat jo eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 20a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.